

TE8. INFORMATIKA-TEKNIKARIA

BIGARREN ARIKETA

Denbora, gehienez: 150 minutu

Idatzi hemen proba honetarako zure identifikazio-gako pertsonala:

Azterketa-kodea: TE82202	
-----------------------------	--


Ez ireki galdera-orriak esan arte, eta irakur itzazu arretaz orri honetako jarraibideak.

- **Mugikorrak itzalita** eduki behar dira, eta mahaitik kanpo, baita erlojuak, jarduera-eskumuturrekoak eta antzekoak ere. Ur-botilak, estutxeak eta antzekoak eskura eduki daitezke, baina ez mahaiaren gainean.
- Ahoz jakinaraziko da zenbat denbora falta den proba bukatzeko: 60, 30, 15, 10 eta 5 minutu geratzen direnean, eta azken minutuan.
- Mahaiaren gainean hauek besterik ezin izango dira eduki: galdera-orriak, identifikazio-orria, NANA eta boligrafoa (urdina edo beltza). Ezin da TIPEX® edo antzekorik erabili.
- GAKOA duen **identifikazio-orria** eman badizute, jar itzazu datu hauek: nortasun-agiria, izen-deiturak eta probaren kodea/izena.
- Identifikazio-orria probaren lehen minutuak igaro ondoren jasoko da.
- Adieraz ezazu **identifikazio-GAKO pertsonala** orri honetan eta hala eskatzen den orrietan.
- Kontrakoa adierazi ezean, EZ idatzi izena edo NANA, ezta sinatu ere, EZ ZUZENTZEKO arrazoia izango bailitzateke.
- Epaimahaiak **irakurtzeko moduko idazkera** erabili behar da ariketan.
- Erantzun labur eta zehatzak eman behar dira. Aldez aurretik zehaztuta daude zuzenketa-irizpideak.
- Kasu guztietan, **erantzuteko leku mugatua** dago. **Ez dira zuzenduko hori gainditzen duten erantzunak.**
- **Galdera bakoitzaren balioa puntu 1** izango da. **Hainbat erantzun dituzten galderetan, hainbanatu egingo dira zuzenak**, galderaren puntuazioaren gainean.
- **Bertaratze-ziurtagiria** nahi baduzu, eska ezazu presentzia-kontrola egiten den unean.
- Denbora agortu aurretik bukatzen baduzu, altxa eskua galdera-orriak edo erantzun-orriak har diezazkizuten.
- Ez da azterketarik jasoko, banaka, azken 3 minutuetan. Bukatu baduzu, geratu zure lekuan, isilik, denak batera bildu arte.

Eskerrik asko zure laguntzagatik,

1. KASUA W10


1. galdera. Identifika itzazu osagaiak, izenekin.



Portu paraleloa		PS/2 sagua	
HDMI		Audioaren irteera	
PS/2 teklatua		DVI	
Firewire		Display Port	
RJ-11		USB 2.0	
VGA		Audioaren sarrera	
Usb C		RJ-45	
USB 3.0		Thunderbolt	
AGP		RS-232 portua	
Elikadura-kablea		RJ-12	




2. galdara. Identifika itzazu plaka nagusiaren osagaiak, adierazten diren izenak baliatuz.



CMOS pila		eSata	
ISA		Reset Bios	
DIMM		XT	
Simm		PCIe X16	
AGP		VESA	
Sata		RJ-12	
RJ-11		PCIe X1	
Wifi		MiniJack	

3. galdera. Identifika ezazu zein motatakoak diren 1 eta 2 zenbakia duten bi SSD M2 diskoak.



1.	2.
----	----

4. galdera. Disko gogor bateko informazioa ezabatu nahi dugu, eta berreskurazina izan dadila. Nola deitzen zaio disko gogorreko informazioa ezabatu eta berreskurazina egiteko 35 pausu baliatzen dituen metodoari?



5. galdera. Ordenagailu bat dugu; ez da pizten, eta pizteko botoiak gorriz dir-dir egiten du. Estatika-arazo bat da. Adierazi, laburzki, zein diren hori konpontzeko pausuak.

1. _____
2. _____
3. _____
4. _____

6. galdera. Barrura iristerik daukagun ordenagailu bateko **BIOS**a ezabatu behar dugu. Zein dira horretarako bi metodo arruntenak, sagurik, teklaturik eta inolako softwareerik erabili gabe?

1. _____
2. _____

2. KASUA LINUX

Arazoak ditugu Ubuntu sistema eragilea duen ordenagailu batekin, eta ez dugu gogoratzen *root* pasahitza.

7. galdera. Zein pausu emango zenituzke berreskuratze-moduan edo modu seguruan abiarazteko? Adieraz itzazu laburzki.

1. _____
2. _____
3. _____

8. galdera. Zer egingo zenuke edozein erabiltzailek modu seguruan edo berreskuratze-moduan abiarazterik ez izateko? Adieraz ezazu laburzki.

3. KASUA Windows 10

9. galdera. Zein da gaur egun Windows 10en azken bertsio egonkorra?

10. galdera. Kotsola bidezko lote-komando bat egin behar dugu, aukera eman dezan, administratzaile lokala den erabiltzaile baten profiletik, ordenagailu batean saioa hasi duen baina une horretan saioa hasita ez duen erabiltzaile baten erregistro-gakoa eguneratzeko. Adierazi, laburzki, eman beharreko pausuak. Ez da beharrezkoa komandoa.

1. _____

2. _____

3. _____

11. galdera. Windowsen arazo bat dugu **ORDENAGAILU** izeneko urruneko ordenagailu batean, eta Windowseko erregistro-gako baten balioa egiaztatu nahi dugu,

HKLM\SOFTWARE\microsoft\windows\currentversion\explorer\shell folders

eta **Common Appdata** gakoa bakarrik erakutsi. Zer komando erabiliko zenuke? Idatz ezazu erantzuna **letra larriz**, eta **zuriuneak kontuan hartuz**.



12. galdera. activeX kontrolak erabiltzen dituzten hainbat aplikazio ditugu Udalean. Aplikazio batzuk migratzen ari dira, baina beste batzuk ez, eta horiek funtzionatzeari utziko diote Internet Explorer-ek funtzionatzeari uzten dionean, eta, beraz, edo guztiak migratu beharko dira, edo konponbideren bat bilatu beharko da funtzionatzen jarraitzerik izan dezaten. Zein datatan adierazi du Microsoftek Windows 10ean Internet Explorerren segida etenda geratuko dela?

13. galdera. Aplikazio bat instalatu behar dugu **Windows 10**en, baina badakigu **Windows XP SP3**rekin baino ez dela bateragarria. Ezin dugu bateragarritasunez exekutatu, lote-prozesu batean instalatzeko erantzun-fitxategi automatiko bat baitugu. Nola esango diogu Windows 10i instalazioa **Windows XP SP3**ren bertsio bateragarrian exekutatzeko, lote-prozesuaren **script**aren barruan?

14. galdera. Windows 10en eskatzen digute ordenagailu baten abiaraztean memoria **maximoan** konfiguratu diezaioguna, eta al bait nukleo-kopururik **handiena**. Osa itzazu eman beharreko pausuak.

1. _____ -ra joan.
2. _____ fitxa.
3. Aukeratu _____
4. Hautatu _____ eta

5. Hautatu _____ eta

6. _____ eta _____
7. _____

15. galdera. Microsoften Windowsen bertsio berria (11) atera da, eta, beraz, **10. bertsioak** badu dagoeneko sostengua bukatuko deneko data. Zein da data hori?

4. KASUA

Alde zaharreko udal-eraikin batean, komunikazioen armairua dagoen solairu berean, bulego bat jarriko da, bi ordenagailurekin, eta intranet-konektagarritasuna behar dute horiek, udal-aplikazioak erabiltzeko. Ez dago kable berririk jartzerik eraikineko gainerako ordenagailuentzat dagoen sare-armairuraino. Badago instalazio elektrikoa, baina kanalizazio horretatik ez da pasatzen sareko kablea. Ezin da erabili wifia, ez zuntz optikoa, ez datu mugikorrak.

16. galdera. Eman **bi** konponbide posible, eta azaldu itzazu laburzki.

1. _____

2. _____

17. galdera. Zein gailu beharko lirateke kasu bakoitzean, funtzionatzekotan?

1. _____

2. _____



18. galdera. Bi konponbideetatik, zein aukeratuko zenuke abiadura lehenesten bada?

5. KASUA

Duela gutxi, konfiguraturuta egotea eskatzen ez duen beste konponbide batekin ordeztu da sareko **proxya**, baina antzeman dugu domeinuko hainbat ordenagailuk oraindik konfiguraturuta dutela **proxya**, eta dagoeneko ez da beharrezkoa hori konfiguraturuta edo gaituta egotea. Horregatik, lote-komando bat behar dugu (**borrarproxy.bat** deituko diogu), aukera eman diezagun kontsultatzeko —administratzaile lokalaren baimenak ditugun urruneko ekipo batetik (parametro gisa pasatuko diogu lote-komandoari)— **proxya** gaituta duen ala ez, eta konfiguratu nahi ditugun bi gakoak konfiguratzeko, **configuracionproxy.reg** erregistro-fitxategiaren bitartez. Ekipoetan, urruneko erregistro-zerbitzua desaktibatuta dago, lehenespen gisa. Eta ordenagailu horretan saioa hasi duten erabiltzaile guztientzat egin beharra daukagu (gakoak **HKCU**n baitaude), baita ordenagailu horietan etorkizunean konekta litezkeen erabiltzaileentzat ere, bestela **proxya** konfiguraturuta edukitzen jarraituko bailukete, eta ez bailukete nabigaziorik izango. **listausers.txt** izeneko testu-fitxategi bat sortuko dugu, ordenagailu horretan saioa hasi duten erabiltzaileen izenekin.

Configuraproxy.reg

Windows Registry Editor Version 5.00

[HKEY_LOCAL_MACHINE\REMOTE\SOFTWARE\Microsoft\Windows\CurrentVersion\Internet Settings]

"ProxyEnable"=dword:00000000

"Proxy Server"=""

19. galdera. Nola idatziko dugu lote-komandoa, komando-lerroan, exekutatzeko?

20. galdera. Zein komando baliatuko dugu jardun nahi dugun urruneko ekipoaren erabiltzaile-zerrendaren fitxategia sortzeko?

21. galdera. Zein komando baliatuko dugu jardun nahi dugun urruneko ordenagailuaren urruneko erregistro-zerbitzua aktibatzeko?

22. galdera. Zein komando baliatuko dugu lehendik **listausers.txt** fitxategian sortutako erabiltzaile guztiak korritu eta bakoitzeko beharrezko diren komandoak exekutatzeko, jardun nahi dugun urruneko ordenagailuan?

23. galdera. Zein komando baliatuko dugu jardun nahi dugun urruneko ordenagailuaren erabiltzaile-erregistroa erabiltzeko?

24. galdera. Zein komando baliatuko dugu erregistroan **configuraproxy.reg** kargatzeko?

25. galdera. Zein komando baliatuko dugu urruneko ordenagailuaren erabiltzailearen erregistroa erabiltzeari uzteko?

26. galdera. Zer gertatuko litzateke aurreko galderako prozesua egingo ez bagenu? Azaldu ezazu laburzki.



27. galdera. Nola desaktibatuko dugu urruneko erregistro-zerbitzua?

6. KASUA

ssd diskoa duen ordenagailu eramangarri bat dugu, **dvd**-rik gabea —udal-sarera konektatzen ez dena—, sail bateko zuzendariak erabiltzen duena, eta aurrerantzean beste zuzendari batek erabiliko du. Protokolo gisa, ordenagailu eramangarria garbitu egin behar da. Badakigu **Windows**-en **1909** bertsioa duela. Bi aukera ditugu, edo irudia klonatu, edo hutsetik berriro instalatu, azken bertsioarekin. Aspalditxo (**1903** bertsioarekin) erositako eramangarrien loteko ordenagailu baten irudia dugu, eta, beraz, aplikatu beharreko eguneratzeak ditu.

28. galdera. Zer litzateke azkarrena? Izan ere, premiazkoa da zuzendariari entregatzea. Justifika ezazu laburzki.

29. galdera. Zein pausu emango zenituzke, aurreko galderaren erantzunaren ildotik? Azaldu itzazu laburzki.

1. _____
2. _____
3. _____
4. _____
5. _____
6. _____

30. galdera. Egoera hori ekiditeko, zer litzateke gomendagarria? Azaldu ezazu laburzki.

7. KASUA

Erabiltzaileei Laguntzeko Zentroan —laguntza behar duten erabiltzaileen deiak jaso ohi dira bertan—, erabiltzaile baten deia jaso da; erabiltzailea blokeatuta duela dio, eta ezin duela saioa hasi. Dugun politikaren arabera, saioa hasteko hainbat ahaleginek kale eginez gero, kontua blokeatu egiten da, segurtasun-neurri gisa.

31. galdera. Azaldu, laburzki, intzidentziaren ziklo osoan emango zenituzkeen pausuak.

1. _____
2. _____
3. _____
4. _____
5. _____
6. _____



32. galdera. Hainbat agintaldi bertan egin dituen zinegotzi batek korporazioa utziko du, eta bere agenda osoa eraman nahi du, eta **OpenXchange**-ko bere kontaktuak, gero Google Calendar-era inportatu ahal izateko. Posta-mezuak ez ditu eraman nahi. *Pendrive* bat emango digu, sortzen ditugun fitxategiak bertan sartzeko.

Azaldu, laburzki, zein pausu eman behar diren agenda eta kontaktuak eramaterik izan dezan.

Agenda:

1. _____
2. _____
3. _____
4. _____

Kontaktuak:

1. _____
2. _____
3. _____
4. _____

33. galdera. Zinegotzi berari iPhone bat utzi zitzaion bere garaian, eta itzuli egin du orain. Ezabatu egin behar da edukia, beste norbaiti uzteko. Azaldu, laburzki, zein pausu eman behar diren iPhone hori berrezartzeko.

1. _____
2. _____
3. _____

34. galdera. Erabiltzaile batek deitu du Erabiltzaileei Laguntzeko Zentrora. Ezin omen du **Windows 10**en NAN elektronikoaren ziurtagiri digitala erabili. Duela gutxi berri omen zuen nortasun-agiria, eta harrezkero ez omen dio funtzionatzen ziurtagiri digitalak. Azaldu, laburzki, zer egin behar dugun haren ordenagailuan, aurreko NANaren ziurtagiriak funtzionatzen bazion eta orain funtzionatzen ez badio (beste ordenagailu batean erabili ahal izan omen du NAN elektroniko berria, eta egiaztatu da teklatuko ziurtagiri-irakurgailuak ongi funtzionatzen duela).

35. galdera. Erabiltzaile batek deitu du Erabiltzaileei Laguntzeko Zentrora. **Thunderbird**en jasotako mezu elektroniko baten gorputzean karaktere arraroak agertzen omen zaizkio. Azaldu, laburzki, zer egin behar dugun hori konpontzeko.